



Fitxategien jakinarazpen-eredua betetzeko jarraibideak

Instrucciones para cumplimentar el formulario de notificación de ficheros

ALDERDI OROKORRAK	CUESTIONES GENERALES
<p>Jarraibide hauek beren beregi fitxategien jakinarazpen-eredua betetzen laguntzeko dira.</p> <p>Eredua inskripzioaren eskabide-orriak eta jakinarazpenaren xehetasun-orriek osatzen dute. Eskabide-orria beti paperean aurkeztuko da, behar bezala beteta eta sinatuta, xehetasun-orriak aurkezteko modua edozein dela ere.</p>	<p>Estas instrucciones se dictan exclusivamente a efectos de facilitar la cumplimentación del modelo de notificación de ficheros.</p> <p>El modelo se compone de una hoja de solicitud de inscripción y de las hojas interiores de detalle de la notificación. La hoja de solicitud deberá ser cumplimentada y presentada en todo caso en papel, debidamente firmada, cualquiera que sea el tipo y la modalidad de presentación de las hojas interiores.</p>
<p>Zeintzuk jakinarazi behar dute Datuak Babesteko Erregistroan fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatu egin dituztela?</p> <p>Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorritik, sortutako fitxategien berri eman behar dute datu pertsonalen fitxategiak sortzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek (publikoa zein pribatua izan) eta Administrazioeko organoek, ondoren fitxategi horiek Datuak Babesteko Erregistroan inskribatze aldera.</p>	<p>¿Quiénes están obligados a notificar la creación, modificación o supresión de ficheros al Registro de Protección de Datos?</p> <p>Están obligados a notificar la creación de ficheros para su inscripción en el Registro de Protección de Datos, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, aquellas personas físicas o jurídicas, de naturaleza pública o privada, u órgano administrativo, que procedan a la creación de ficheros de datos de carácter personal.</p>
<p>Zein fitxategi edo tratamendu jakinarazi behar dira?</p> <p>Euskarri fisikoan erregistratuta egoteagatik tratatu daitezkeen datu pertsonalak dituen fitxategi oro.</p>	<p>¿Qué ficheros o tratamientos deben notificarse?</p> <p>Cualquier fichero que contenga datos de carácter personal registrados en un soporte físico que los haga susceptibles de tratamiento.</p>
<p>Fitxategietan egiten diren zein eragiketa jakinarazi behar dira Datuak Babesteko Erregistroan?</p> <p>Fitxategi berria sortzea edo datu pertsonalen tratamendua egitea erabakiz gero, <u>fitxategia inskribatzeko eskatu</u> beharko duzu, dagokion eskabidearen bidez.</p> <p>Datuak Babesteko Erregistroan inskribatutako fitxategiren batean aldatetaren bat egin behar izanez gero, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari halaxe adierazi eta, kasuan kasu, <u>inskripzioa aldatzeko edo ezabatuzko eskabidea</u> helaraziko zaio.</p>	<p>¿Qué operaciones acerca de un fichero se notifican al Registro de Protección de Datos?</p> <p>Si Vd. va a crear un nuevo fichero o va a realizar un nuevo tratamiento de datos personales, deberá notificar la correspondiente <u>solicitud de inscripción del fichero.</u></p> <p>Cualquier modificación posterior en el contenido de la inscripción de un fichero en el Registro de Protección de Datos, deberá comunicarse a la Agencia Vasca de Protección de Datos, mediante una <u>solicitud de modificación o de supresión de la inscripción</u>, según corresponda.</p>
<p>Zein kasutan inskribatzen dira fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan?</p> <p>Fitxategia Datuak Babesteko Erregistroan inskribatuta geratzeko, jakinarazpenak ezarritako baldintzak bete behar ditu.</p> <p>Hala egin ezean, falta diren datuak osatzeko edo daturen bat zuzentzeko eskatuko da.</p> <p>Nolanahi ere, fitxategi bat Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzeak 15/1999 Lege Organikoan ezartzen den jakinarazteko betebeharrak bete dela baino ez du adierazten, eta, beraz, inola ere ez fitxategiaren erantzuleak lege horretan eta gainerako erregelamenduzko xedapenetan aurreikusitako beste betebeharrak ere betetzen dituenik.</p>	<p>¿Cuándo queda inscrito un fichero en el Registro de Protección de Datos?</p> <p>El Registro de Protección de Datos inscribe el fichero si la notificación se ajusta a los requisitos exigibles.</p> <p>En caso contrario podrá pedir que se completen los datos que falten o se proceda a su subsanación.</p> <p>En todo caso, la inscripción de un fichero en el Registro de Protección de Datos, únicamente acredita que se ha cumplido con la obligación de notificación dispuesta en la Ley Orgánica 15/1999, sin que de esta inscripción se pueda desprender el cumplimiento por parte del responsable del fichero del resto de las obligaciones previstas en la Ley y demás disposiciones reglamentarias.</p>



<p>Zein da jakinarazpen-ereduaren edukia? Jakinarazpen-eredua honakoek osatzen dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Inskripzioaren eskabide-orria. • Jakinarazpenaren xehetasun-orriak. Honako ataletan banatzen dira: <p>1etik 12ra bitarteko orrialdeetan, honako atalak daude: erantzulea, datuetara iristeko zerbitzu edo unitatea, antolaketa, fitxategiaren izena, arduraduna, segurtasun-neurriak, egitura, xedea, kolektiboa, jatorria, lagapenak eta nazioarteko transferentziak.</p> <p>13. orrialdean, berriz, honako atalak: ezabatzea eta aldaketa.</p>	<p>¿Cuál es el contenido del modelo de notificación? El modelo de notificación se compone de:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hoja de solicitud de inscripción. • Hojas de detalle de la notificación, que se encuentran estructuradas en apartados: <p>Páginas 1 a 12: Apartados de Responsable, Servicio o Unidad de Acceso, Disposición, Nombre del Fichero, Encargado, Medidas de Seguridad, Estructura, Finalidad, Colectivo, Procedencia, Cesiones y Transferencias Internacionales</p> <p>Página 13: Apartados de Supresión y Modificación</p>
<p>Zein atal bete behar dira fitxategi berria sortu dela jakinarazteko?</p> <p>Nahitaez bete behar dira eskabide-orria eta jarraian aipatzen diren atalak: erantzulea, antolaketa, fitxategiaren izena, segurtasun-neurriak, egitura, xedea, kolektiboa eta jatorria.</p> <p>Hala ere, irakurri arretaz gainerako atalak betetzeko jarraibideak, eta, beharrezkoa bada, horiek bete.</p>	<p>¿Qué apartados debe cumplimentar para notificar la creación de un fichero?</p> <p>Son de obligada cumplimentación la hoja de solicitud y los apartados: Responsable, Disposición, Nombre del Fichero, Medidas de Seguridad, Estructura, Finalidad, Colectivo y Procedencia.</p> <p>No obstante, lea detenidamente las instrucciones de cumplimentación del resto de apartados, y rellénelos en caso de que así sea necesario.</p>
<p>Zein atal bete behar dira inskripzioa aldatu egin dela jakinarazteko?</p> <p>Horretarako, eskabide-orria, 13. orrialdean dagoen <i>Aldaketa</i> izeneko atala eta aldatu nahi diren atalei dagozkien orrialdeak bete behar dira.</p>	<p>¿Qué apartados debe cumplimentar para notificar una modificación de inscripción?</p> <p>Deberá cumplimentar la hoja de solicitud, apartado de <i>modificación</i> de la página 13 y las páginas correspondientes a los apartados que Vd. desee modificar.</p>
<p>Zein atal bete behar dira inskripzioa ezabatu egin dela jakinarazteko?</p> <p>Horretarako, eskabide-orria eta 13. orrialdean dagoen <i>Ezabatzea</i> izeneko atala bete behar dira.</p>	<p>¿Qué apartados debe cumplimentar para notificar la supresión de una inscripción?</p> <p>Deberá cumplimentar la hoja de solicitud y el apartado de <i>supresión</i> de la página 13.</p>
<p>Nola betetzen da jakinarazpena?</p> <p>Datak jartzeko orduan, egunak eta hilabeteak 2 digiturekin adieraziko dira eta urtea, berriz, 4 digiturekin (<i>uuuuuhhe</i>).</p> <p>Atal guztiak irakurri ondoren, 'X' jarriko da tratamendu edo fitxategiak izango dituen edukia, xedea eta erabilerak ongien islatzen dituzten atalei dagozkien laukitxoetan.</p> <p>Testu libreko eremuetan, laburki adierazi eskatu den informazio guztia. Testu libreko eremu berean balio bat baino gehiago barneratuz gero, komen bidez bereizi.</p> <p>BAI edo EZ aukeratu behar den eremuetan, beti adierazi bietako bat.</p> <p>Posta-helbideak jartzerakoan, bide-mota adierazteko, jarraibide hauen amaieran dagoen kode-taulan agertzen direnetako bat adierazi.</p>	<p>¿Cómo cumplimentar la notificación?</p> <p>Las fechas deberán indicarse con 2 dígitos para el día y el mes, y 4 dígitos para el año (<i>ddmmaaaa</i>).</p> <p>Deberá marcarse con una 'X' la casilla o casillas de las opciones que mejor reflejen el contenido, finalidad y usos previstos del tratamiento o fichero, tras leer todas las incluidas en cada apartado.</p> <p>Para los campos de texto libre, indique de forma sucinta pero completa la información solicitada. En caso de incluir varios valores en un mismo campo de texto libre, sepárelos por comas.</p> <p>En el caso de tener que cumplimentar campos que presentan SI o NO como opción, indicar siempre una de las dos opciones.</p> <p>En la cumplimentación de direcciones postales, para indicar el tipo de vía consigne alguno de los que aparecen en la Tabla de Códigos al final de estas instrucciones.</p>
<p>AURKEZTEKO MODUA</p>	<p>FORMA DE PRESENTACIÓN</p>
<p><i>Inskribatu, ezabatu edo aldatu</i> beharreko fitxategi bakoitzeko jakinarazpen-eredu bat bidali behar da, behar bezala beteta. Horrekin batera, inskripzioaren eskabide-orria ere ekarri behar da, beteta eta sinatuta.</p> <p>Horiez gain, 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikuluan aipatzen den fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeari buruzko xedapen orokorraren kopia ere ekarriko da (xedapen hori BOEn edo kasuan kasuko aldizkari ofizialean argitaratutakoa izango da).</p> <p>Agiriak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4. artikulua aurreikusten dituen erregistro edo bulegoetako edozeinetan aurkeztuko dira.</p>	<p>Deberá enviar un modelo de notificación por cada fichero a <i>inscribir, suprimir o modificar</i>, debidamente cumplimentado, acompañado de la hoja de solicitud de inscripción, cumplimentada y firmada.</p> <p>Además, tendrá que acompañar una copia de la disposición general de creación, modificación o supresión del fichero, publicada en el BOE o diario oficial correspondiente, a que hace referencia el artículo 20 de la Ley Orgánica 15/1999.</p> <p>Esta documentación se enviará o presentará en la Agencia Vasca de Protección de Datos, o en cualquiera de los Registros y Oficinas previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.</p>



OINARRIZKO TERMINOEN GLOSARIOA	GLOSARIO DE TÉRMINOS BÁSICOS
<p>Jarraian, oinarrizko termino batzuk definitzen dira, jakinarazpen-eredua ulertzea eta betetzea errazago izan dadin.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Datu pertsonalak: pertsona fisikoak zuzenean edo zeharka identifikatzea ahalbidetzen duen horien gaineko edozein informazio (3. art.). • Fitxategia: datu pertsonalen multzo oro, berdin dio zein den bera sortzeko, biltegitratzeko, antolatzeko edo hara iristeko era edota modalitatea (3.b art.) • Datuen tratamendua: eragiketa eta prozedura tekniko hauek, automatizatuak izan zein ez izan, aukera ematen dute datuak biltzeko, grabatzeko, gordetzeko, prestatzeko, aldatzeko, blokeatzeko eta ezerezteko, bai eta komunikazioetan, kontsultetan, interkonexioetan eta transferentzietan sortutako datuak lagatzeko ere (3.c art.) • Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulea: tratamenduaren xedea, edukia eta erabilera erabakitzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa –publikoa nahiz pribatua– edota administraziooko organoa (3.d art.). • Tratamenduaren arduraduna: pertsona fisiko edo juridiko edota agintari publiko honek, berak bakarrik edo beste batzuekin batera, datu pertsonalak tratatzen ditu tratamenduaren erantzulearen kontura (3.g art.). • Espainiako ordezkaria: tratamenduaren erantzulea ez badago Europar Batasunaren lurraldean finkatuta eta datuen tratamendurako Espainian kokatutako bitartekoak erabili behar badira, Espainiako ordezkaria izendatu beharko da, baldin eta bitarteko horiek ez badira bideratze-modura erabiltzen. (5.1.e art.). • Tartekoa edo interesduna: tratatutako datuen jabea den pertsona fisikoa (3.e art.). • Bereizte-prozedura: datu pertsonalen tratamenduetan lortutako informazioa pertsona zehatzarekin edo zehatz daitekeen pertsonarekin ez erlazionatzeko modua ekarriko den tratamendu oro da (3.t art.). • Interesdunaren adostasuna: interesdunak bidezko informazioa jaso ondoren askatasunez egiten duen borondate-adierazpen argia eta zehatza, hain zuzen ere bere datu pertsonalen tratamendua egiteko baimena emateko (3.h art.). • Datuak lagatzea edo komunikatzea: interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea (3.i art.) • Jendeak eskuragarri dituen iturriak: Edozein pertsonak kontsulta ditzakeen fitxategiak. Mugaren bat jartzekotan, diru-kopururen bat ordaindu beharra izan daiteke. Jendeak eskuragarri dituen iturriak soil-soilik honako hauek izango dira: sustapeneko erroldak; telefono-zerrendak (horiei buruzko arauak aurreikusitako baldintzetan); eta izena, titulua, lanbidea, jarduera, maila akademikoa, helbidea eta taldea baino adierazten ez dituzten lanbide-taldeetako pertsonen zerrendak. Halaber, jendeak eskuragarri dituen iturritzat hartuko dira egunkari eta aldizkari ofizialak eta komunikabideak (3.j art.). • Segurtasun Erregelamendua: 994/1999 Errege Dekretua, ekainaren 11koa, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurriei buruzko erregelamendua onesten duena (BOE, 151. zk., 1999ko ekainaren 11koa). Dekretu hori Bulegoaren web gunean dago eskuragarri. 	<p>Se definen a continuación una serie de términos básicos con el fin de facilitar la comprensión y cumplimentación del modelo de notificación:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Datos de carácter personal: Cualquier información concerniente a personas físicas que permita su identificación directa o indirectamente (Art. 3.a). • Fichero: Todo conjunto organizado de datos de carácter personal, cualquiera que fuere la forma o modalidad de su creación, almacenamiento, organización y acceso (Art. 3.b). • Tratamiento de datos: Operaciones y procedimientos técnicos de carácter automatizado o no, que permitan la recogida, grabación, conservación, elaboración, modificación, bloqueo y cancelación, así como las cesiones de datos que resulten de comunicaciones, consultas, interconexiones y transferencias (Art. 3.c). • Responsable del fichero o tratamiento: Persona física o jurídica, de naturaleza pública o privada, u órgano administrativo, que decida sobre la finalidad, contenido y uso del tratamiento (Art. 3.d). • Encargado del tratamiento: La persona física o jurídica, autoridad pública, servicio o cualquier otro organismo que, solo o conjuntamente con otros, trate datos personales por cuenta del responsable del tratamiento (Art. 3.g). • Representante en España: Cuando el responsable del tratamiento no esté establecido en el territorio de la Unión Europea y utilice en el tratamiento de datos medios situados en territorio español, deberá designar, salvo que tales medios se utilicen con fines de tránsito, un representante en España (Art. 5 .1.e). • Afectado o interesado: Persona física titular de los datos que sean objeto del tratamiento (Art. 3.e). • Procedimiento de disociación: Todo tratamiento de datos personales de modo que la información que se obtenga no pueda asociarse a persona determinada o determinable (art. 3.t). • Consentimiento del interesado: Toda manifestación de voluntad, libre, inequívoca, específica e informada, mediante la que el interesado consienta el tratamiento de datos personales que le conciernen (Art. 3.h). • Cesión o comunicación de datos: Toda revelación de datos realizada a una persona distinta del interesado (Art. 3.i) • Fuentes accesibles al público: Aquellos ficheros que pueden ser consultados por cualquier persona sin más limitación que, en su caso, el abono de una contraprestación. Tienen la consideración de fuentes de acceso público, exclusivamente, el censo promocional, los repertorios telefónicos en los términos previstos por su normativa específica y las listas de personas pertenecientes a grupos de profesionales que contengan únicamente los datos de nombre, título, profesión, actividad, grado académico, dirección e indicación de su pertenencia al grupo. Asimismo, tienen el carácter de fuentes de acceso público, los diarios y boletines oficiales y los medios de comunicación (Art. 3.j). • Reglamento de Seguridad: Real Decreto 994/1999, de 11 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de medidas de seguridad de los ficheros automatizados que contengan datos de carácter personal (BOE Nº 151, de 25 de junio de 1999), disponible en la página Web de la Agencia.



ESKABIDE-ORRIA	HOJA DE SOLICITUD
<p>Jarri 'X' bete beharreko eskabide-motari dagokion laukitxoan. Orrialde honetan eskatzen diren datu guztiak bete.</p> <p>Fitxategiaren bat aldatu edo ezabatuko dela jakinarazi nahi izanez gero, erantzulearen izena eta IFK Datuak Babesteko Erregistroan adierazitakoak izango dira.</p> <p>Jarraian, adierazi orrialde hau izenpetzen duen pertsonak fitxategiaren erantzuleari dagokionez zein kargu edo izaera duen, eta berau identifikatzeko datuak (izen-abizenak).</p> <p>Aipatu baita ere jakinarazpenak nora bidali behar diren. Helbidea beti jarri behar da, baita fitxategiaren erantzulearenaren berdina bada ere.</p>	<p>Marque con una 'X' la casilla correspondiente al tipo de solicitud que va a declarar. Haga constar la totalidad de los datos que se solicitan en esta página.</p> <p>Si está notificando una modificación o una supresión de un fichero, el nombre y CIF del responsable HOJA corresponderá con el que figure inscrito en el Registro de Protección de Datos.</p> <p>A continuación indique el cargo o la condición del firmante de esta página en relación con el responsable del fichero, y sus datos identificativos: nombre y apellidos.</p> <p>Señale también el lugar a efectos de notificaciones. Esta dirección debe cumplimentarse en todos los casos, aún cuando coincida con la del responsable del fichero.</p>
FITXATEGIAREN ERANTZULEA	RESPONSABLE DEL FICHERO
<p>Markatu 'X' batez zein administratziotan dagoen fitxategiaren erantzule den organoa.</p>	<p>Señale con una 'X' el tipo de Administración en que se encuentra encuadrado el órgano responsable del fichero.</p>
<p>“Autonomía Erkidegoetako administrazio eta erakunde publikoak” aukeratuz gero, bete baita ere Autonomia Erkidegoko Kodea dioen eremua, jarraibide hauen amaieran dagoen kode-aula kontuan izanik.</p>	<p>Si ha señalado "Administración y Organismos Públicos de las Comunidades Autónomas", rellene el campo Código de Comunidad Autónoma, de acuerdo con la Tabla de Códigos al final de estas instrucciones.</p>
<p>Idatzi herrialdearen izena, Espainia ez bada.</p>	<p>Consigne el nombre del país, en caso de que éste no sea España.</p>
<p>Tratamenduaren erantzulea ez badago Europar Batasunaren lurraldean kokatuta eta datuen tratamendurako Espainian kokatutako bitartekoak erabili behar badira, Espainiako ordezkaria izendatu beharko da, baldin eta bitarteko horiek ez badira bideratze-modura erabiltzen; hori guztia tratamenduaren erantzulearen aurka jar litezkeen akzioei kalterik egin gabe. Kasu honetan, nahitaez bete behar da Espainian duen ordezkariaren datuei buruzko atala (2. Datuetara iristeko zerbitzu edo unitatea).</p>	<p>Cuando el responsable del tratamiento no esté establecido en el territorio de la Unión Europea y utilice en el tratamiento de datos medios situados en territorio español, deberá designar, salvo que tales medios se utilicen con fines de tránsito, un representante en España, sin perjuicio de las acciones que pudieran emprenderse contra el propio responsable del tratamiento. En este caso, deberá cumplimentar obligatoriamente los datos de su representante en España en el apartado 2, <i>Servicio o Unidad de Acceso</i>.</p>
<p>Telefono, fax eta helbide elektronikoari dagozkien atalak aukerakoak dira.</p>	<p>El teléfono, fax y dirección e-mail son de cumplimentación voluntaria.</p>
Datuen aurka egitea, datuetara iristea, eta datuak zuzentzea eta ezerezte	Oposición, acceso, rectificación y cancelación
<p>Atal hau ondorengo kasuetan baino ez da beteko: datuen aurka egiteko, datuetara iristeko eta horiek zuzentzeko eta ezerezteko eskubideaz baliatzen den herritarrari laguntzeko 1. atalean (<i>Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulea</i>) adierazitako helbidea ez beste lekuren bat finkatzen denean.</p> <p>Nahitaez bete beharrekoak dira dependentsia edo bulegoaren izenari. Bat baino gehiago badira edo zehazgarriak badira, adierazi zein bulego nagusitara edo dependentsiatara joango den interesduna dagozkion eskubideez baliatzeko.</p> <p>Telefono, fax eta helbide elektronikoari dagozkien atalak aukerakoak dira.</p>	<p>Este apartado únicamente deberá cumplimentarlo en el caso de que la dirección donde se prevea atender al ciudadano que desee ejercitar sus derechos de oposición, acceso, rectificación y cancelación sea diferente a la indicada en el apartado 1.- <i>Responsable del fichero o Tratamiento</i>.</p> <p>Cumplimente obligatoriamente el nombre de la dependencia u oficina y la dirección completa de la misma. Si existen varias o son determinables, indique la oficina principal o dependencia a la que se dirigirá el afectado para el ejercicio de sus derechos, El teléfono, fax y dirección e-mail son de cumplimentación voluntaria</p>
XEDAPEN OROKORRA	DISPOSICIÓN GENERAL
<p>Adierazi zein den Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako xedapen orokorra, Administrazio Publikoen fitxategiak sortzeari, aldatzeari eta ezabatzeari buruzkoa.</p> <p>Ez ahaztu jakinarazpenarekin eta eskabide-orriarekin batera xedapen horren kopia igorri behar dela.</p>	<p>Indique la disposición general publicada en el BOE o diario oficial correspondiente, relativa a la creación, modificación o supresión de ficheros de las Administraciones Públicas.</p> <p>No olvide enviar una copia de esta disposición junto con la notificación y la hoja de solicitud.</p>
FITXATEGIAREN IZENA	NOMBRE DEL FICHERO
<p>Adierazi jakinarazi beharreko fitxategiaren edo tratamenduaren izena eta deskribatu labur-labur.</p>	<p>Indique el nombre que identifique el fichero o tratamiento a notificar y una breve descripción del mismo.</p>

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA	ENCARGADO DEL TRATAMIENTO
<p>Atal hau beteko da soil-soilik hirugarren batek tratamendua erantzulearen kontura egiten duenean, 1. atalean (<i>Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzulea</i>) esan bezala.</p> <p>Hirugarrenen kontura tratamenduak egiten direnean, kontratu bidez arautu beharko dira. Kontratua idatziz jasoko da, edo haren sorrera eta edukia egiaztatzeko bidea ematen duen beste era batera. Kontratuan berariaz adieraziko da tratamenduaren arduradunak tratamenduaren erantzuleak ematen dizkion jarraibideen arabera egingo duela datuen tratamendua, ez dituela datuak erabiliko kontratuan ageri ez den ezertarako, eta ez diola inori daturik komunikatuko, ezta haiek gordetzeko ere.</p> <p>Tratamenduaren arduraduna pertsona pribatua bada (fisikoa zein juridikoa), ez ahaztu 'X' jarri behar dela dagokion laukitxoan eta garatzen den jarduera nagusiaren kodea adierazi behar dela (kodeak jarraibide hauen amaieran dagoen kode-taulan jasotzen dira).</p> <p>Telefono, fax eta helbide elektronikoari dagozkien atalak aukerakoak dira.</p> <p>Idatzi herrialdearen izena, Espainia ez bada.</p> <p>Helbidea Espainiatik kanpokoa bada, 12. atala ere bete behar da (<i>Nazioarteko transferentziak</i>).</p>	<p>Este apartado únicamente habrá de cumplimentarse cuando un tercero realiza el tratamiento por cuenta del responsable, indicado en el apartado 1. <i>Responsable del fichero o tratamiento</i>. La realización de tratamientos por cuenta de terceros deberá estar regulada en un contrato que deberá constar por escrito o en alguna otra forma que permita acreditar su celebración y contenido, estableciéndose expresamente que el encargado del tratamiento tratará los datos conforme a las instrucciones del responsable del tratamiento, que no los aplicará o utilizará con fin distinto al que figure en dicho contrato, ni los comunicará, ni siquiera para su conservación, a otras personas.</p> <p>En caso de que el encargado del tratamiento fuera una persona física o jurídica de naturaleza privada no olvide marcar con una 'X' la casilla correspondiente e indicar el código de actividad principal de la misma, que podrá consultar en la Tabla de Códigos al final de estas instrucciones.</p> <p>El teléfono, fax y dirección e-mail son de cumplimentación voluntaria.</p> <p>Consigne el nombre del país, en caso de éste no sea España.</p> <p>Si esta dirección se encuentra fuera del territorio español deberá cumplimentar obligatoriamente el apartado 12. <i>Transferencias internacionales</i>.</p>
SEGURTASUN-NEURRIAK	MEDIDAS DE SEGURIDAD
<p>Atal honetan eskatu beharreko segurtasun-maila adieraziko da. Segurtasun-neurriak hiru mailatakoak izan daitezke: oinarritzkoa, ertaina eta goi-mailakoa.</p> <p>Honakoei aplikatuko zaizkie <i>oinarritzko mailako neurriak</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> Datu pertsonalen fitxategiei, jarraian aipatzen diren mailetakoa neurrien pean dauden fitxategiei izan ezik. <p>Honakoei aplikatuko zaizkie <i>maila ertaineko neurriak</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> Arau-hauste penal edo administratiboen nahiz Ogasun Publikoaren gaineko datuak dituzten fitxategiei; Finantza-zerbitzuen gaineko datuak dituzten fitxategiei; edo Zerbitzuak emate aldera, ondare-kaudimenaren eta kredituaren gaineko datuak dituzten fitxategiei. <p>Honakoei aplikatuko zaizkie <i>goi-mailako neurriak</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> Ideologiari, sindikatu-bazkideztari, erlijioari, sinesteei, arrazari, osasunari edo bizitza sexualari buruzko datuak dituzten fitxategiei; edo Polizia-helburuak gauzatzeko aldera adostasunik gabe jaso diren datuak dituzten fitxategiei. <p>Nolanahi ere, oinarritzko mailari dagozkion segurtasun-neurriak ezarrita beharko ditu gutxienez.</p> <p>Dagokion laukitxoan 'X' jarri behar da. Laukitxo bakarra aukera daiteke.</p>	<p>En este apartado se indicará el nivel de seguridad exigible. Las medidas de seguridad exigibles se clasifican en tres niveles: básico, medio y alto.</p> <p>Se consignará una 'X' en el <i>nivel básico</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> Para cualquier fichero de datos de carácter personal, excepto aquellos que estén incluidos en alguno de los niveles siguientes. <p>Se consignará una 'X' en el <i>nivel medio</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> Si se trata de un fichero que contenga datos relativos a infracciones penales o administrativas, o Hacienda Pública, o Se trata de un fichero que contenga datos relativos a servicios financieros, o Se trata de un fichero para la prestación de servicios de información sobre solvencia patrimonial y crédito. <p>Se consignará una 'X' en el <i>nivel alto</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> Cuando el fichero contenga datos de ideología, afiliación sindical, religión, creencias, origen racial, salud o vida sexual, o Si se trata de un fichero que contenga datos recabados para fines policiales sin consentimiento. <p>En cualquier caso, al menos está obligado a tener implantadas las medidas de seguridad catalogadas como de nivel básico. Señale obligatoriamente, con una 'X' la casilla que corresponda. Únicamente puede seleccionar una casilla.</p>
BABES BEREZIKO DATUAK	DATOS ESPECIALMENTE PROTEGIDOS
<p>(<i>Ideologiaz, sindikatu-bazkideztaz, erlijioaz, sinesteez, arrazaz, osasunaz, bizitza sexualaz edo arau-hauste penal nahiz administratiboez diharduten datu pertsonalak tratatzen direnean bakarrik bete behar da atal hau</i>).</p> <p>Halakoetan, horren guztiaren inguruko legeak ezarritakoa jarraituz tratatuko dira.</p> <p>Irakurri arretaz atal hauetan ezarritako baldintzak eta markatu zeintzuek ematen duten mota horretako datuak tratatzeko ahalmena.</p> <p>Babes bereziko datuak ezin dira jarraian aipatzen diren azpialdatetik bakar batean ere tipifikatu.</p>	<p>(<i>Cumplimente únicamente cuando sean objeto de tratamiento los datos de carácter personal que revelen o hagan referencia a ideología, afiliación sindical, religión, creencias, origen racial, salud; vida sexual, infracciones penales o administrativas</i>)</p> <p>En estos casos, deberán ampararse en alguno de los supuestos que la Ley establece al efecto para poder tratarlos.</p> <p>Lea con atención los supuestos citados en estos apartados y marque aquellos que le habilitan para tratar este tipo de datos.</p> <p>Los datos especialmente protegidos no se podrán tipificar en ninguno de los subapartados siguientes.</p>



BESTE DATU-MOTA BATZUK	OTROS TIPOS DE DATOS
<p>Markatu fitxategian adierazi edo tratatzen diren datu-mota guztiak. Datu horiek ez badaude jakinarazpen-ereduan beren beregi deskribatzen direnen artean, markatu “Bestelakoak” laukitxo eta zehaztu. Eredu honetan, hainbat datu-mota adieraz daitezke, komaz bereziak.</p> <p>Datu pertsonalen fitxategiek <u>identifikazio-daturen</u> bat izan behar dute gutxienez.</p>	<p>Marque todos y cada uno de los tipos de datos contenidos o tratados en el fichero. En caso de tratarse de datos no descritos expresamente en los tipos indicados en el modelo de notificación, marque el literal "Otros" y especifíquelos. Este campo podrá recoger varios tipos de datos, separados por comas. Cualquier fichero de datos de carácter personal debe contener al menos algún dato de carácter identificativo.</p>
<p>FITXATEGIAREN XEDEA ETA AURREIKUSITAKO ERABILERA</p>	<p>FINALIDAD DEL FICHERO Y USOS PREVISTOS</p>
